araba álava
foru aldundia diputación foral

Prentsa Oharra
Nota de Prensa

Arabako Foru Aldundiak 1,77 milioi euro bideratuko ditu 2027ko baso laguntzetara

Deialdiak zazpi laguntza lerro jasotzen ditu, Arabako mendi publikoak zein partikularrenak kontserbatzeko, hobetzeko eta lehengoratzeko

Vitoria-Gasteiz, 2026ko azaroaren 24a. Foru Gobernu Kontseiluak gaur onetsi du 2027ko Baso Laguntzen Planaren deialdiaren izapidetze aurreratua. Deialdiak 1.770.000 euroko zuzkidura izango du. Laguntza horien helburua da Arabako mendien kudeaketa jasangarria sustatzea, haien kontserbazioa bultzatzea eta baso potentziala hobetzea, bai eta lurraldeko baso masek jasan ditzaketen kalteak prebenitzea eta konpontzea ere.

Nekazaritza Sailak deialdiaren izapidetzea aurreratu du, pertsona eta erakunde onuradunek aurreikusitako inbertsioak gauzatzeko behar adina denbora izan dezaten.

Deialdiaren zenbateko osotik, 1.300.000 euro mendi publikoetako jarduketetara bideratuko dira, 345.000 euro partikularren mendietako dirulaguntzetara eta beste 125.000 euro mugaketa eta mugarriztatze lanetara. Zuzkidura ekonomikoa 2027ko eta 2028ko ekitaldien artean banatuko da, 845.000 eta 925.000 euro, hurrenez hurren.

Deialdiak zazpi jarduketa lerro jasotzen ditu: basoen kontserbazioa; basogintza; baso kalteen prebentzioa; antolamendua, jabetza eta erabilera publikoa; baso eta larre azpiegiturak, bide azpiegiturak eta sastraken garbiketa biologikoa; baso potentziala hobetzeko inbertsioak; eta baso kalteak konpontzea.

Era berean, diruz lagundu daitekeen inbertsioaren gehieneko zenbatekoa handitzeko aukera aurreikusten da baso suteek edo bestelako kalteek, hala nola diplodiak eragindakoek, kaltetutako azalerak basoberritzeko jarduketetan.

Eskaerak aurkezteko epea deialdia Arabako Lurralde Historikoaren Aldizkari Ofizialean (ALHAO) argitaratu eta hurrengo egunean hasiko da, eta 2027ko urtarrilaren 22ra arte egongo da zabalik.

Elena Ferreira Sebastián – eferreira@araba.eus - 945 18 18 93 – prentsa.araba.eus

araba álava
foru aldundia diputación foral

Prentsa Oharra
Nota de Prensa

Foru Aldundiak mezenasgoko 2026rako lehentasunezko jardueren zerrenda onetsi du, % 45eko zerga pizgarriekin

Foru Dekretuak lehentasunezkotzat jotzen ditu gizarte, kultura, ingurumen, kirol eta interes orokorreko proiektuak, enpresen eta herritarren parte hartzea bultzatuta haien finantzaketarekin

Gobernu Kontseiluak onespena eman dio 2026ko ekitaldirako lehentasunezko mezenasgo jarduera eta programen zerrenda ezartzen duen foru dekretuari. Neurri horren helburua da enpresen, erakundeen eta herritarren lankidetza sustatzea, zerga pizgarri indartuen bidez, interes orokorreko ekimenak finantzatzeko.

Neurria 35/2021 Foru Arauan sartzen da, zeinak irabazteko asmorik gabeko erakundeen zerga araubidea eta mezenasgorako pizgarriak arautzen baititu eta aukera ematen baitie lehentasunezkotzat jotako proiektuei ekarpenak egiten dizkieten pertsona fisiko eta juridikoei emandako zenbatekoen % 45eko zerga kenkariaz baliatzeko.

2026rako onetsitako zerrendak gizarte, ingurumen, kultura, kirol, teknologia, euskararen sustapen, enpresen gizarte erantzukizun eta interes orokorreko beste helburu batzuetako ehun bat jarduera eta erakunde biltzen ditu.

Aitortutako ekimenen artean, honako hauek daude: AFA Araba, APDEMA, Espainiako Gurutze Gorria edo Vitoria-Gasteizko Elizbarrutiko Caritas gizarte erakundeek garatutako programak; Arabako Artium Fundazioari, Santa Maria Katedrala Fundazioari, Vitoria-Gasteizko Jazzaldiari edo Azkena Rock Festival jaialdiari lotutako kultura proiektuak; bai eta ondarearen kontserbazioarekin, ingurumenaren babesarekin eta jarduera fisikoaren eta kirolaren sustapenarekin lotutako jarduerak ere.

Ingurumenaren eremuan, dekretuak lehentasunezkotzat jotzen ditu naturagune babestuak berreskuratzeko eta kontserbatzeko programetarako ekarpenak, foru aldundiaren bizikleta bideak eta Arabako Ibilbide Berdeen Sarea garatzeko eta hobetzeko ekarpenak eta lurraldearen osotasun ekologikoa itxuraberritzeko proiektuak.

Dekretuak, gainera, emakumeen kirola sustatzeko gaikuntza jasotzen du. Horrela, Kultura eta Kirol Sailak lehentasunezkotzat jo ahal izango ditu emakumeek protagonizatutako kirol-ekimenak edo emakumeek parte hartzea bultzatzen dutenak, genero-estereotipoak hausten laguntzen dutenak eta Arabako Lurralde Historikoan emakumeen kirolaren ikusgarritasuna areagotzen dutenak.

Dekretu honen bidez, Arabako Foru Aldundiak lankidetza publiko-pribatuko tresnak indartuko ditu, gizartean, kulturan, ingurumenean eta ekonomian eragina duten proiektuak sustatzeko, eta, hala, gizartearen parte hartzea bultzatzeko ongizate kolektiboan eta lurraldearen aurrerapenean laguntzen duten ekimenen garapenean eragina duten proiektuak sustatzeko.

Elena Ferreira Sebastián – eferreira@araba.eus - 945 18 18 93 – prentsa.araba.eus

Erakunde onuradunek jasotako ekarpenak zertan aplikatu dituzten justifikatu beharko dute, eta, 2027ko urtarrilean, txosten xehatu bat aurkeztu beharko dute lortutako dohaintzei edo prestazioei buruz, bai eta haien xedeari eta garatutako interes orokorreko helburuei buruz ere.

araba álava
foru aldundia diputación foral

Prentsa Oharra
Nota de Prensa

Foru Aldundiak A-132 errepidea hobetzeko proiektuaren idazketa esleitu du

Hijona eta Trokonizen foru-garraioko geltoki seguru berriak izango ditu

Foru Gobernu Kontseiluak gaur onartu du Fulcrum, Planificación, Análisis y Proyecto SAU enpresari esleitzea Villafranca eta Egileta herrien arteko A-132 errepidea hobetzeko eta egokitzeko proiektuaren idazketa, 196.888 euroan eta 12 hilabeteko epean.

Proiektuak konponbide tekniko eta eraikitzaile egokienak zehaztuko ditu A-132 errepidearen 4 kilometro inguruko tarte bat egokitzeko, A-4120 errepidearekiko elkargunearen eta Egiletaren artean, trazadura optimizatuz, bidegurutzeak hobetuz – batez ere Egiletara sartzeko A-132 eta A-3112 errepideen arteko lotura – eta bide eta finka partikularretarako sarbideak bide-segurtasuneko irizpideekin berrantolatuz.

Era berean, Hijona eta Trokonizen autobus-geltoki seguruak sortuko dira, errepideen arloan indarrean dagoen araudiari jarraiki. Geltoki horiei esker, herrigune horietako biztanleei Alavabuseko linea erregularrak erabiliz emango zaie garraio publikoko zerbitzua.

Esku-hartze horrekin, eta aurretik Andollura arte egindako jarduketak kontuan hartuta, A-132 errepideak baldintza homogeneoak eskainiko ditu Elorriagatik Egiletaraino. Bide hori Arabako Lurralde Historikoko oinarrizko errepide-sarearen ibilbide garrantzitsua da, Nafarroako Foru Erkidegoa Gasteizekin lotzen baitu eta Arabako Mendialdea egituratzen baitu.

Arabako Errepideen Plan Integralean (PICA) jasotako proiektu honen idazketa esleitzeak Mugikortasun Jasangarriaren eta Bide Azpiegituren Sailak inguruko udalekin eta administrazio-batzarrekin duen konpromisoa betetzen du, eta jarraipena ematen die A-132 errepidean egin berri diren beste jarduketa batzuei, hala nola Azazetako mendatearen bi isurialdeetan 10,5 kilometroko zorua berritzeari edo Azazeta herriko zeharbidea hobetzeari.

Egiletako bidegurutzea hobetzea eta Trokoniz, Egileta eta Vírgalako bidegurutzeetan bide-segurtasuna indartzeko prebentzio-jarduerak dira azken urteotan egin diren beste esku-hartzeetako batzuk.

Elena Ferreira Sebastián – eferreira@araba.eus - 945 18 18 93 – prentsa.araba.eus

araba álava
foru aldundia diputación foral

Prentsa Oharra
Nota de Prensa

Arabako Foru Aldundiak laguntza teknikoa adjudikatu du katastroko informazio sistemaren euskarri eta mantentze lanetarako

Hauexek bermatzen dira: sistemen egonkortasuna, informazioaren kalitatea eta tresna teknologikoak kudeaketako eta zerbitzu publikoko premia berrietara etengabe egokitzea

Gobernu Kontseiluak onespena eman dio Trabajos Catastrales SA enpresari adjudikatzeari katastroko informazio sistemaren euskarri eta mantentze lanetarako laguntza teknikoko lanak.

Foru erakundeak 308.550 euroko inbertsioa egingo du laguntza tekniko horretarako, BEZa barne, eta lan horiek egiteko epea bi urtekoa izango da.

Katastroa funtsezko tresna da lurraldea antolatzeko eta ezagutzeko, eta laguntza teknikoarekin hauexek bermatuko dira: sistemen egonkortasuna, informazioaren kalitatea eta tresna teknologikoak kudeaketako eta zerbitzu publikoko premia berrietara etengabe egokitzea

Horrek guztiak herritarrei arreta azkar eta eraginkorragoa ematea ekarriko du, katastroko datuetarako sarbidea erraztuz eta izapideak modu erraz, seguru eta gardenean eginez.

Elena Ferreira Sebastián – eferreira@araba.eus - 945 18 18 93 – prentsa.araba.eus

araba álava
foru aldundia diputación foral

Prentsa Oharra
Nota de Prensa

Arabako Foru Aldundiak 93.000 euro jarri ditu Laudioko adingabeentzako eguneko zentrora

Foru Gobernuaren Kontseiluak, Gizarte Politiketako Departamentuak proposatuta, lankidetza-hitzarmen bat onartu du gaur goizean Laudioko Udalarekin. Horren bidez, 93.000 euro bideratuko ditu udalerri horretan adingabeentzako eguneko zentroa finantzatzeko.

Foru Aldundiak 1996az geroztik laguntzen du Laudioko Udalaren eguneko zentro horren funtzionamenduan; 12 plaza ditu, eta 6 eta 18 urte bitarteko haur eta nerabeak artatzen ditu, haien familia-egoerak hala gomendatzen baitu, babesgabetasun-arrisku arineko edo ertaineko egoeran dagoelako.

Zerbitzu horretan, beren bizikidetza-ingurune naturalean bizi diren adingabeekin lan egiten da, ezagutzak eta baliabide pertsonalak eskuratzen eta gaitasunak garatzen laguntzeko, gizarte-harremanetako arazoei, gatazkak konpontzeko estrategiei edo emozioak adierazteko estrategiei aurre egin ahal izateko. Aldi berean, familiei laguntzen zaie beren hezkuntza-estiloak hobetzeko, familiaren gaitasuna, kontaktu positiboak eta bi aldeen arteko lotura errazteko.

Elena Ferreira Sebastián – eferreira@araba.eus - 945 18 18 93 – prentsa.araba.eus

araba álava
foru aldundia diputación foral

Prentsa Oharra
Nota de Prensa

Elena Ferreira Sebastián – eferreira@araba.eus - 945 18 18 93 – prentsa.araba.eus